

ZER BEHAR DU'TE GAZTEEEK?

EUSKARATIK DITUGUN ERRONKAK ALETZEN.

EK. 1 • 2

BBK Kuna, Bilbo



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ZER BEHAR DUTE GAZTEEK?

Euskaratik ditugun erronkak aletzen.

Ekainaren 1 eta 2an,
Bilboko BBK Kuna espazioan.

ANTOLATZAILEAK:



IREKIERA EKITALDIA

09:15-09:30

Idurre Eskisabel Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia
Miren Dobaran Jaurilaritzako Hizkuntza Politikanako sailburvordea

HITZALDIA

09:30-10:15

**Zer etxeko-lan egin behar ditu hezkuntzak
gazteak euskalduntzeko?**

Iratxe Retolaza Ikelaria, UEUko GOI institutua

HITZALDIA

10:15-11:00

**Nola eragiten dute jatorri soziolinguistikoak
eta hizkuntz ideologiak gazteen hizkuntz hautuetan?**

Nekane Arratibel Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien (HUHEZI) fakultateko irakasle-ikertzailea



KAFE-ETENA 11:00-11:30

HITZALDIA

11:30-12:15

Periferiako gazteak eta euskara. Ertza amildegi ala talaia?

Naroa Jauregizuria Soziologoa, hizkuntza-kudeaketa aholkularia

HITZALDIA

12:15-13:00

**Arnasguneetako gazteak eta euskara.
Ekosistema zabalago baten falta?**

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

HITZALDIA

13:00-13:45

Entzuten al diegu gazteei euskaraz?

Itxaso Paya Ikus-entzunezkoetan graduatua, sortzailea



MAHAI-INGURUA

15:45-17:00

**Gazteak hizketan. Zergatik egin euskararen alde?
Euskarak zer egiten du gure alde?**

Laura Ré Podcastgilea
Asier Urkiza Literatur kritikaria
Carlos Martinez Musikaria

Cristina Osés Soziologoa
Odei Barroso Musikaria, bertsolaria



HITZALDIA

09:30-10:15

Nola hitz egiten du egungo munduak?

Josu Aztiria Orai NLP Teknologiak-eko koordinatzailea

HITZALDIA

10:15-11:00

Nola lotzen dira euskara eta nortasun digitala?

Agurtzane Elordui EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saileko irakaslea eta ikerlaria

Jokin Aiestaran EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saileko irakaslea eta ikerlaria



KAFE-ETENA 11:00-11:30

HITZALDIA

11:30-12:15

Nola baliatu astialdia gazteen euskalduntzean eragiteko?

Amaia Perez Hezten-eko soziolinguistika lantaldeko koordinatzailea

HITZALDIA

12:15-13:00

Nola fabulatzen dute gazteek euskara?

Goiatz Oiartzabal Badalab Hizkuntza eta Gizarte Berrikuntzarako laborategiko zuzendaria

HITZALDIA

13:00-13:45

Zer diote gazteek euskaraz?

Amets Aranguren Euskalgintzaren Kontseiluko proiektu burua

AZKEN PUNTUA

13:45-14:00

Laburbilduma bertsotan



Zer etxeko-lan egin behar ditu hezkuntzak gazteak euskalduntzeko?

Nerabezaroa giza garapenaren funtsezko aldia da nortasunaren erakuntzan, baita sozializazio-prozesuan ere, eta garapen-aldi horretan gazteek euren bizi-ibilbideari loturiko hainbat erabaki hartuko dituzte, baita hezkuntza-praktikei edo kultura-praktikei dagozkienak ere. Jakina, bizi-ibilbidean zehar halako erabaki asko birpentsatuko dituzte, baina, nerabezaroan harturiko hainbat bidek arrastoa utziko dute.

Testuinguru horretan, hezkuntza-esparruan euskal hiztun aktiboak sortzeko egin beharreko urratsek garrantzi berezia hartzen dute, nerabe eta gazte askok bakar-bakarrik hezkuntza-esparruan dutelako euskararekin eta euskal kulturarekin hartu-eman iraunkorragoa. Bide horretan, besteak beste, erronka nagusi hauxe dugu: euskara hitz gorpuztu eta afektibo bilakatzeko jardunbide pedagogikoak eta kulturalak garatzea. Norabide horretan urratsak egin ahal izateko gako zenbait bilduko dira hitzaldi honetan, betiere gogoeta kolektiboa sustatzeko asmoz.



IRATXE RETOLAZA

Ikerlaria, UEUko GOI institutua

Euskal Filologian lizentziatua. Gaur egun UEUko GOI

institutuko lantaldeko kidea da, Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterreko irakaskuntzan zein koordinazioan lanean

diharduela, besteak beste.

Ikerketa-ildo hauek jorratu izan ditu: Ikerketa Kulturalak eta Ikerketa Feministak, diziplina artistikoen arteko harremanak, Euskal Curriculumma eta literaturaren irakaskuntza. Emagin elkarteko kidea da, eta Donostiako Emakume Etxeetan euskal kulturaren inguruko hainbat ikastaroren dinamizatzaile da.

HITZALDIA

🕒 10:15-11:00

Nola eragiten dute jatorri soziolinguistikoak eta hizkuntz ideologiak gazteen hizkuntz hautuetan?

Hitzaldi honetan ikerlan baten emaitzak azalduko dira. Etorkizuneko irakasleek euskararen transmisio eta normalizazioan eragiteko duten erantzukizuna kezka izanik abiatu dute ikerketa-lan hau. Horretarako, HUHEZI fakultatera, hezkuntza ikasketak egitera, 1 mailara etorritako ikasleen hizkuntza-profilak eraiki dituzte. Helburua izan da hizkuntza-profil ezberdinetako ikasleen diskurtsoak aztertzea hizkuntza-hautu eta hizkuntza-ideologian sakontzeko. Gainera, ikerketak aukera eman du fakultatean aurrera eramaten den Hizkuntza Tutoresia programa ebaluatzeko eta berdiseinatzeko.

Emaitzek erakutsi dute hizkuntza-hautuek harremana dutela bestelako aldagaiekin; besteak beste, jatorri soziolinguistikoarekin eta hizkuntza-ideologiekin. Emaitza horiek laguntzen digute pertsonalizazioarako bidean diseinuan egokitzapenak eta doikuntzak egiten, hobe-kuntza ildoak identifikatzen eta baita hizkuntza-politikari eta normalizazioari begirako hainbat ondorio ateratzen.

**NEKANE ARRATIBEL**

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) fakultateko irakasle-ikertzailea

Psikologian lizentziatua eta doktorea. Egun Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakulta-

tean dihardu irakasle-ikertzaile lanetan etorkizuneko irakasleen formazioan. Psiko-soziolinguistika arloan dihardu ikerketan eta hainbat artikulua argitaratu ditu euskararekiko motibazio, jarrera eta identitate gaian. Fakultateko EKHI (Euskara, Kultur- eta Hizkuntza Identitatea) ikertaldeko koordinatzailea da.

Periferiako gazteak eta euskara. Ertza amildegi ala talaia?

Bilbo Handiko (Uribekosta, Bilbo eta Ezkerraldeko) 15-18 urte bitarteko gazteek euskara eta euskal kulturarekin zein harreman duten ezagutzen saiatu dira, ikastetxeen testuinguruan. Zuzenean euren galdetu diete eta ondorioak ere euren kontrastatu dituzte. Esku-hartze horietatik euskara eta euskarazko kulturaren transmisioan eta artikulazioan lagun dezaketen hainbat jarraibide identifikatu dituzte. Azpimarratu behar da, gazte hauek borondatez parte hartu dutela, ikasgelaka egin dituzte esku-hartzeak eta horri esker oso ikuspegi anitza eta interesgarria jaso dute. Proiektu honetan oinarrituta euskara eta euskararen periferia terminoa definitu dute: gabezia eta gatazkarekin lotuta, baina aldi berean eraldaketarako eta berrartikulaziorako aukera eta bultzada izan daitekeena.



NAROA JAUREGIZURIA

Soziologoa, hizkuntza-kudeaketa aholkularia

Ikasketaz soziologoa, egun hizkuntza-

kudeaketa aholkularia da AHIZEn, AEKren hizkuntza-aholkularitza zerbitzuan. Berdintasun- eta garapen-politiketan, erakundeetako

komunikazioan eta kultura transmisioan aditua eta aritua ere bada. 2013tik nazio-markagintzarekin eta kultura-transmisioarekin lotutako ikerketa, lan eta proiektuak egin ditu hainbat erakunde eta eragilarekin elkarlanean. 2017tik, *Euskara.Kultura. Transmisioa. Ertzetatik* ikerketa eta esku-hartzea garatzen eta zuzentzen dabil.

HITZALDIA

🕒 12:15-13:00

Arnasguneetako gazteak eta euskara. Ekosistema zabalago baten falta?

Euskararen biziberritze prozesuan gune garrantzitsvak dira arnasguneak, dela euskararen erreprodukzio baldintza ia berezkoak bermatzeko, dela hizkuntza politika aurreratutak entseatzeko eta beste eremu soziolinguistikoaren trakzio indar izateko. Nolanahi dela, azken boladan aldaketa handiak ari dira gertatzen arnasguneetan: aldaketa demografikoak, sozioekonomikoak, ingurune digitala... Erronka eta galdera berriak ari dira pizten arnasguneen inguruan.

Horietako batzuk harreman zuzen-zuzena dute gaztetxo eta gazteekin: bizimoduaren digitalizazioak ez al ditu arnasguneen mugak aldatu? Globalizazioak ekarritako homogeneizazioak eragin al du arnasguneetako gaztetxo eta gazteen hizkuntza praktikan? Baldintza haketan arnasguneak sortzen al du itomenik gazteengan?

**UEMA**

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea da UEMA. Udalerri horien ezaugarri behinena da biztanleen %70ek bai-

no gehiagok dakitela euskaraz; hots, arnasguneak dira UEMAko herri asko. Mankomunitatearena, berriz, etorkizuneko Euskal Herri euskaldunarekiko engaiamendua. Horrenbestez, eremu soziolinguistiko euskaldunenetik gainerako eramvetarako trakzio indar diren hizkuntza-politikak garatzen ditu. Bide horretan, ikerketa da beren lan arloetako bat.

Entzuten al diegu gazteei euskaraz?

Ardura gabeak, axola gabeak, errudunak... Etsigarriak irudikatzen dituzte batzuek gaur egungo gazteak. Proiektu honetan, aldiz, gazte ETZIGARRIAK elkartu ditugu, etxerako eta etzirako modukoak. Etxerako moduko hainbat gazterekin etzirako moduko etorkizuna eraikitzen aritu gara hilabete haureretan zehar hurrengo galderari erantzuna bilatuz: Nolakoa nahi zenuke izatea gazte euskaldun baten bizitza etorkizunean?

Aurrez aurreko bi topaketa eta online bidezko hainbat gogoeta eta gero, ondorio bakoitzari bere izena bilatu diote prozesuan parte hartu duten gazteek: #Etorkiluna #Euskolartekoa #EZkaintza #Ele2zi

Gogoetan zehar ateratako ondorio eta hausnarketetan oinarritutako bi sorkuntza gauzatu ditugu prozesua borobiltzeko. Alde batetik, fikzio hibrido baten ikus-entzunezko pieza [1] sortu dute gazteek elkarlanean eta, bestetik, "Gazteak, euskara eta beste piztia mitologiko batzuk" bakarrizketa musikatua sortu dute prozesu osoan zehar parte-hartu duten Iholdi eta Ibabe Beristain ahizpek.

**ITXASO PAYA**

Ikus-entzunezkoetan graduatua, sortzailea

Euskal sortzailea: antzezlea, gidoilaria eta

bertsolaria. Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatua. Bertsolaritza irakasle ibili da hainbat urtez, baita kultur eta aisialdi teknikari ere euskalgintzan. Hezitzaile lanak egin ditu hamaika urtetan zehar bertso-uda-

leketan, gaur egun sormen egonaldietan ibiltzen da hezitzaile. 2022tik Zelako Kultur Ideiak Kooperatiba Elkarte Txikiko kidea da eta sormen, ekoizpen eta komunikazio lanak egiten ditu. Hainbat lan: 'Go!azen' (2009, Pausoka), 'TestiGU ginen' (2012, EHU), 'Zonbi eguna' (2015, Zinebi), 'Bertsolaritzaren sekretuak' (2017, Lanku), 'Mari eta gaileta fabrika' (2018, Eida-be), 'Nor da Maurizia' (2022, Zelako Kultur Ideiak).

MAHAI-INGURUA

⌚ 15:45-17:00

Gazteak hizketan. Zergatik egin euskararen alde? Euskarak zer egiten du gure alde?

Gazteen hitza zuzenean presente izanen da ondoko mahai-inguru honetan. Euskal Herriko ertz diferentetan bizi diren bost gazte elkartuko ditugu euskararen inguruko galdera/hausnarketa batzuen bueltan, bakoitzak bere bizipen eta errealitatetik erantzun diezaien. Sorterri/bizilekuak, generoak, ingurvak eta hantv pertsonalek duten eragin eta garrantziaz arituko dira, batik bat.

25 eta 35 urte arteko gazte havek, modu batera ala bestera, lotura estua dute euskararekin eta leku inportantea du hizkuntzaren auziak euren egunerokotasunean. Gaiaren inguruko proposamen eta diskurtso mamituak entzuteko parada izanen dugu.

**ASIER URKIZA**

Bilbo, 1997. Euskal Ikasketetan graduatua. Egun, literatur-kritikaria Berrian eta euskara irakaslea DBHn.

**LAURA RÉ**

Lorca, 1995. Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatua. 2018tik bizi da Euskal Herrian eta orduan hasi zen euskara ikasten. Podcastgilea.

**CARLOS MARTINEZ**

Murtxante, 1997. Administrazio eta Zuzendaritzan graduatua. 20 urterekin hasi zen euskara ikasten. Begirale Iruñean.

**CRISTINA OSES**

Azkoien, 1994. Soziologia Aplikatuan graduatua. Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokia lanean. Nafarroako Erriberan dauden euskararen bueltako diskurtsoei loturiko gaietan interesatua.

**ODEI BARROSO**

Urruñ, 1988. Rapero eta bertsolaria. Egun ØDEI bakarkako rap proiektuan murgildua eta bertsolaritza bazter batera utzia aldi baterako.

Nola hitz egiten du egungo munduak?

Ingurune digitalaren orokortze eta nagusitzea munduarekin, bizimoduarekin, eta, horrenbestez, hizkuntzekin harremanetan aritzeko moldeak zuztarretik aldatzen ari da. Besteak beste, ingelesa hizkuntza bizi eta gorpuztua da mundu osoko belarinaldi berrientzat. Geurera etorritak, euskarak gaztelera eta frantsesa ez ezik, ingelesa ere albo eta gain hizkuntza du jada egunerokoan.

Testuinguru horretan eta beren erreferentzialtasunari eutsi asmoz, asko dira ingurune digitalean inbertsio handiak egiten ari diren estatu hizkuntzak, esaterako, estatu hizkuntza izan arren hiztun kopuru txiki eta erdi mailakoak dituzten herrialde eskandinabiarrak. Are, munduko hizkuntza indartsuen artean kokatuta dauden gaztelera eta frantsesa ere ingurune berri honetan ingelesari aurre egiteko neurriak hartzen ari dira. Hizkuntza gutxitu den heinean, nolakoa da euskararen egoera Itsaso handi honetan? Zer behar du ingurune digitalean aurrera egiteko? Egungo eta etorkizuneko gazteentzat hizkuntza bizi eta gorpuztu izan dadin?



JOSU AZTIRIA

Orai NLP Teknologiak-eko koordinatzailea

Humanitateak-enpresan lizentziatua.

Enpresa antolamendu eta kudeaketa aurreratua, eta ekonomia sozialeko enpresen kudeaketa; bi master ditu. Euskararen garapenari lotutako enpresa eta erakundeetan osatu du ibilbidea nagusiki. 2006ik Elhuyar Fundazioan lan egiten du

eta 10 urte daramatza zuzendaritza-taldean. Hizkuntza Zerbitzuak saileko kudeatzaile bezala sartu zen eta orain Orai NLP Teknologiak langune teknologikoa koordinatzen du. Baliabide urriko hizkuntzen garapen teknologikoa bultzatzeko Linguattec Europako proiektua gidatzen du eta Euskal Herriko Hizkuntzaren Industria biltzen duen Langune-GAIA klusterreko zuzendaritzako kidea da. Mugimen sozial eta elkartegintzan ere ibilbide luzea du.

HITZALDIA

🕒 10:15-11:00

Nola lotzen dira euskara eta nortasun digitala?

Sare sozialak nork bere identitatea eraikitzeke funtsezko erakusle-
ho bihurtu dira egungo gizarte mediatizatuan, eta hori hala da batez
ere gazteen kasuan. Instagramera igotzen dituzten argazkiek ez ezik,
argazki horien azpiko mezuek ere nabarmenki eragiten dute sareetan
eman nahi duten irudian. Horregatik, zein baliabide linguistiko lehenetsi
eta zein baztertu funtsezko erabakiak dira gazteentzat; adibidez, eus-
kara, gaztelania, ingelesa erabili? Eta horietako bat bakarrik? Euskara
erabiliz gero, euskararen zein baliabide? Gazteek egiten dituzten hantv
estilistiko horiek aztertu ditugu Gaztesare egitasmoan, baita hantv
horien oinarrian dauden ideologia linguistikoak ere.

Hitzaldi honetan, euskararen kasuan jarriko dugu arreta, eta aztertuko
dugu gazteek haien praktikan eta diskurtsoetan zein balio, sinesmen,
iruditeria kultural eta soziopolitiko lotzen dizkioten euskarari. Gaztesa-
reren emaitzek ageri-agerian uzten dute sare sozialen konplexutasun
semiotikoa, eta testuinguru horretan hizkuntzaren inguruko ikuspegi
elebakar batek duen zentzurik eza. Emaitzek iradokitzen dute hizkun-
tzen baliabideak, euskararenak barne, identitate eraikuntza hetero-
glosiko baten tresnatzat ulertu behar ditugula, gazteek unean uneko
ahotsa(k) eraikitzeke baliatzen dituztenak. Gazteentzat praktika hete-
roglosikoak ez dira soilik sareetan komunikatzeko modu 'normala'; aitzia-
tik, modu identitario eta sortzaile gisa aldarrikatzen dituzte.

**AGURTZANE ELORDUI**

EHUko Euskal Hizkuntza
eta Komunikazioa saileko
irakaslea eta ikerlaria

Euskal Herriko Uni-
bertsitateko Euskal Hizkuntza eta
Komunikazioa saileko irakaslea da, eta
NOR Ikerketa Taldeko kidea. Soziolin-

guistikaren alorrean lan egiten du eta,
gaur egun, gazteen praktika estilis-
tikoak, hizkuntza-ideologiak eta sare
sozialetako praktika eleanitzak iker-
tzen ditu. 2018-2022 bitartean, Gaz-
tesare proiektuaren ikertzaile nagusia
izan da EHUko, Nafarroako Uniber-
tsitate Publikoko eta IKER-eko (CNRS)
beste 11 ikerlarirekin lankidetzan.

**JOKIN AIESTARAN**

EHUko Euskal Hizkuntza
eta Komunikazioa saileko
irakaslea eta ikerlaria

Euskal Herriko Uni-
bertsitateko (UPV/EHU) Euskal
Hizkuntza eta Komunikazio Saileko
irakaslea da Gizarte eta Komunikazio

Zientzien Fakultatean, eta NOR iker-
keta-taldeko kidea. Eleaniztasunaren
eta hezkuntzaren, hizkuntza-jarrerren
eta hizkuntza-paisaiaren arloetan
jardun da, eta gaur egun, besteak
beste, gazte euskaldunek sare sozia-
letan dituzten praktika eleaniztunak
aztertzen ari da, hizkuntza-ideologia
eta -identitateetan fokua jarrita.

HITZALDIA

① 11:30-12:15

Nola baliatu astialdia gazteen evskalduntzean eragiteko?

Gero eta ageriagokoa da hezkuntza ez formalak evskalduntzean, evskaldun oso eta aktiboak eratzeko prozesuan duen eragin eta garrantzia. Hezten elkarteak erdigunean ditu bi asmo horiek: aisialdirako eskaintza hezitzaile eta osoa proposatzea, batetik, eta, evskalduntzean eragitea, bestetik. Gainera, aisialdirako eskaintza lantzeaz gain, ekin-tza horietarako hezitzaileak formatzen ditu.

Beren esperientzian oinarrituta, arlo horien lanketa nola egiten duten, eta, batik bat, ezagutza soziolinguistikoa hezkuntza ez formalean nola landu daitekeen eta horrek duen potentzialaren berri emango dute hitzaldi honetan.



AMAIA PEREZ

Hezten-eko
soziolinguistika
lantaldeko
koordinatzailea

Ikasketaz Biologian lizentziatua da eta akuikulturako goi teknikaria. Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua du. 14 urte Hezten-en soziolinguistika arloko lanak egiten eta azken urteetan Soziolinguistika lantaldeko koordinatzailea da.

HITZALDIA

🕒 12:15-13:00

Nola fabulatzen dute gazteek euskara?

Etorkizuneko erronkak pentsatzerakoan ezinbestekoa da gazteen ahotsa jasotzea. Izan ere, etorkizuna euren egingo dute. Era berean, etorkizuna irudikatzerakoan uneko uste eta proiektzioetatik abiatutako ondorioak finkatzea bezain garrantzitsua da nolako etorkizuna nahi den eta desiragarri den horretara iristeko zer bide eta tresna behar diren pentsatzea.

Badalabek ariketa hori eginga du gazte talde batekin, euskararen biziberritzea eta gizarte berrikuntza uztartuz. Fabula bat osatzea izan da ibilbide horren ardatz metodologikoa, gazteek hizkuntz auziarekin nolako harremana duten eta nolakoa izan nahi duten jakiteko tresna bat. Narratiba bat, zeinak ekiteko bide posibleak marrazten dituen.

**GOIATZ OIARTZABAL**

Badalab Hizkuntza eta
Gizarte Berrikuntzarako
laborategiko zuzendaria

Industria ingeniaria
formakuntzaz, indus-
triari lotuta egin du

bere lan ibilbidearen zati bat. Azken urteetan, ordea, gizarte berrikuntzaren arloan dabil, bai arlo horretan formatuz, bai lanean. Soziolinguistika Klusterrean aritu zen proiektu arduradun eta egun Badalab Hizkuntza eta Gizarte Berrikuntzarako laborategiko zuzendari nagusia da.

Zer diote gazteek euskaraz?

Jardunaldien xedea gazteei hitza ematea izan den heinean, garrantzitsutzat jo dugu gaztetxoenen testigantza zuzenak biltzea. Horretarako, bi focus group egin ditugu apirilean zehar: bat EHUko soziologia eta zientzia politikoetako lehenengo mailako ikasleekin eta bestea NUPeko euskara taldeko eta honen bueltako ikasleekin. 18 eta 22 urte artekoak denak.

Bertan, haien hizkuntza-ohituren inguruan duten iritziaz, egunerokotasunean presente dituzten hizkuntzetaz, oztopoez eta oztopoak gainditzeko ardurez mintzatu ginen, besteak beste. Atal honetan laburki aurkeztuko ditugu bi saioetan bildurikoak.



AMETS ARANGUREN

Euskalgintzaren
Kontseiluko proiektu
burua



Focus group 1

Apirilean, EHUko
soziologia eta
zientzia
politikoetako
1. mailako
ikasleekin.



Focus group 2

Apirilean, NUPeko
euskara taldeko
eta honen
buelako
ikasleekin.

